

Aalborg, Ikerlan eta Eskolako ikertzaileen arteko topaketa

2009/06/01

Remus Teodorescu, Aalborg unibertsitateko irakaslea eta VESTAS programaren arduraduna, Pedro Rodríguez UPC-ko (Universidad Politécnica de Cataluña) irakaslea Aalborg unibertsitatean, Ion Etxeberria Ikerlaneko ikerlaria eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Potentzia Elektroniko arloko ikerlari taldea bildu dira honako helburu hauek betetzeko asmoz:

- VESTAS (errota eolikoak egiten munduko lehen enpresa) eta Aalborg unibertsitatearen arteko hitzarmena zabaldu eta jakitera eman.
- Zuzenean ezagutu Goi Eskola Politeknikoa eta enpresen arteko elkarlaneko eredia eta Eskolako hezkuntza eredia.
- Ikasleen arteko trukeak bultzatu, dagoeneko bi unibertsitateen artean abian dagoen Erasmus hitzarmenaren bidez.
- Ikertzaile eta dokotoregaien epe luzerako egonaldiak zehaztu bi unibertsitateen artean

